

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2025eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– Erabakiak:

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 26/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak Otsoaren Kudeaketa Planaren Jarraipen Batzorde Teknikoan duen ordezkari berritzeari.

#### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 27/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren instalazioetarako berokuntzako C gasolioaz hornitzeko esparru akordioa luzatzeari, zeina Kontseiluaren otsailaren 28ko 81/2023 Erabakiaren bidez adjudikatu baitzen.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 28/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egintza bat baliozkotzea, nahiz eta Kontuhartzailtza eta Kontrol Zerbitzuak haren aurkako eragozpenak adierazi (Esp.: CRADO 2024 000003943).

Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Nekazaritza Sailaren egintza bat baliozkotzea, nahiz eta Kontuhartzailtza eta Kontrol Zerbitzuak haren aurkako eragozpenak adierazi (Esp.: CRADO 2024 0000003849).

Foru Gobernu Kontseiluaren 30/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea 2024ko ekitaldiko aurrekontu aldaketei buruzko hainbat espedienteri.

Foru Gobernu Kontseiluaren 31/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea M\_T01/2025/0000000002 konpromiso kreditua aldatzeko espedienteari, 361.995,74 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Hitzarmena ADIFekin: Manzanosko saihe bidea AKK" partida, 2026. urtean, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea M\_S01/20250000000001 kreditua gaitzeko espedienteari, 1.100.000,00 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko Kultura eta Kirol Sailaren "NGEU Gebarako dorrea: birgaitzea" partida.

#### EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 33/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea hondakinen behatokiaren figura eratu eta ezartzeko zerbitzu kontratua luzatzeari, zeina Kontseiluaren abenduaren 28ko 858/2021 Erabakiaren bidez adjudikatu baitzen.

#### MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 34/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea Bilbo/Iruñea C-03 bidaiarien errepide bidezko herri arteko garraio publikoaren emakida luzatzeari, bai eta Bat, Barik eta Mugi txartelen bidezko ehuneko 50eko deskontuei eta Bat txartel pertsonalizatuen bidezko deskontu progresiboaren sistemaren tarte bakoitzeko deskontuak ehuneko 30 handitzeari ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren 35/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea AR-01, AR-02, AR-03 eta C-01 garraio emakiden bidaiarien tarifa eguneratzeari, bai eta emakida horietan eta eskualdeko garraioan Bat, Barik eta Mugi txartelen bidezko ehuneko 50eko deskontuak luzatzeari eta Bat txartel pertsonalizatuen bidezko deskontu progresiboen sistemaren tarte bakoitzeko deskontuak ehuneko 30 handitzeari ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren 36/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena Bilbo/Logroño C-02 emakidaren tarifak eguneratzeari, 6 urtetik beherakoentzako doakotasunari, eta Bat, Barik eta Mugi txartelen bidezko ehuneko 50eko deskontuak luzatzeari eta Bat txartel pertsonalizatuen bidezko deskontu progresiboen sistemaren tarte bakoitzeko deskontuak ehuneko 30 handitzeari ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren 37/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Aprobar definitivamente el proyecto de construcción de pantallas acústicas en la N-622 a su paso por Arangiz (p.k. 5,729 al p.k. 5,947 de la calzada de Bilbao –Vitoria-Gasteiz y entre el p.k. 5,830 al p.k. 5,983 de la calzada Vitoria-Gasteiz -Bilbao así como la relación inicial de bienes y derechos afectados por el mismo.

#### KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 38/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak Añanako Gatz Harana Fundazioari 2025eko ekitaldirako egingo dion transferentziari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 39/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak Artium Fundazioari 2025eko ekitaldirako egingo dion ekarpenari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2025 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onespena ematea Gazteriaren Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzu publikoak modernizatu eta arrazionalizatzeko eta langileen produktibitatea hobetzeko funts bat eratzeari 2025erako.